

MUNGIA´RA (San Antontxu)

Mungia´ko jenteak, eta inguruetako errietan bizi diranak ez gitxiago, neguko jai pozgarri bateri itxaroten dagoz. San Antontxu egunari.

Bigarren egunak, «txu»´ren egunak izaten dira Mungia´n ospetsuenak: San Pedro´txu ta San Antontxu.

Egun orreitan, erri-jaia egiten da. Eleizan ez da izaten zeregin aundirik, San Antontxu egunean ezer be ez astegunetako ekiñaldiak izan ezik.

Baiña errian jairik aundienak eurak dira. Ez dakit zein ospetsuagoa, baiña San Pedrotxu uste dot, udakoa be ba-da ta.

San Antontxu´k be ba-dauka bere ospea, eta ez txikerra.

San Anton auzo bateko jaia zan eta santuaren egunean ezer egitekoatan an egiten zan. Ez dira gorabera txikiak izan jai ori dala-ta !

San Antontxu, ostera, Mungia´tar guztien eguna da, egun aundia.

Abereen feria egiten zai urte juk dirala feri ospetsua.

Mungia´ren uriburu barriztea: Erdian udaletxea, eskoian eta berebillen aurrean Azoka-leku barria; gaiñean bere ibiltoki ederra.

Eta zelako pozaz joaten ziran baserritarrak ara! Bear ba´da ez ezer saldu edo erosi egiteko, baiña bai atxaki orregaz eguna igaro Mungia´n eta bazkari ederra egin bertan !

Andrentzat be, aurreko zapatuan azoka ederra egiten zan. Jarraitzen dauala uste dot oitura onek.

Andrak dirua urriago erabilten eben eta ez eben bazkaririk egiten. Geienean be Leku Ona´n edo olako gozotokiren baten gosaldtu.

Azoka au astero egiteko, azokaleku ederra egin zan erriaren erdi-erdian, gaiñean ibil-tokia dauala, barruan edate-etxea.

San Antontxu egunean jentetza aundia batzen da Mungia´ra. Kaleetan nondik ibillirik be ez. Batez be urtero izaten diran pelota jokoak izaten dira jentea ekarteko onenak, naizta asko jokoaldirako egin-egiñean etorri eta gero euren etxeetara joan.

Jatetxe ta edatetxe asko dagoz Mungia´n,

Eta egun orretan guztiak bete-beterik izango dira. Batez be jateko lekua aurkitzea ez da gauza erreza izango berandu dabilzenentzat.

Jaiak gogoratzen doguzan ezkeru, San Pedro-inguruan ospatzen dan Sukalki-eguna datorku burura. Jai ederra benetan, eta told ederrean! Billela torrearen inguruko baratz aretan. Giro pozgarria ta

gogoangarria.

Auzoetan be egiten dabez Mungia´tarrak jai pozgarriak. Errira etorri goizean, eskoteko zaragia erosi eta taistu ta dantza auzora eroan eta an zugazpe eder eta kerizpetsuetan alkartuta.

Zenbat gauza aitatu geinkezan Mungia´ra begira! Baiña orrialde labur onetan asko geiago ezin esan ieiz.

Egun pozgarria opa dautsegu Mungi ta inguruetako guztiai.

Irakurlea: Karmele Fernández - Bilbo